



EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARREKO OSOKO BILKUREN ARETOAN IKUS-ENTZUNEZKO
EKOIZPENERAKO HD/SD KAMEREN HORNIKUNTZA ETA INSTALAZIOA
PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA
PARTIKULARREN PLEGUA

Expediente n.º: 06-300-11

SUMARIOA

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA GAI OROKORRAK

- 1.- Kontratuaren xedea
- 2.- Arau erregulatuak
- 3.- Kontratuaren aurrekontua, kreditua egotea eta kontratuaren prezioa
- 4.- Prezioak berrikustea
- 5.- Horniduraren iraupena
- 6.- Prozedura eta esleitzeko modua

II.- JARRAITU BEHARREKO IZAPIDETZEA, PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

7.- Proposamenak eta eskatutako dokumentazioa aurkeztea

- 7.1.- Arau orokorrak
- 7.2.- Aurkezpenaren epea eta modua
- 7.3.- A gutun-azala: Proposamen ekonomikoa, formulez baloratu beharreko esleitze-irizpideei buruzko dokumentazioa eta dokumentazio teknikoa
- 7.4.- B gutun-azala: administrazioari, gaitasunari eta kaudimenari buruzko dokumentazioa
- 7.5.- C gutun-azala: Balio-iritziaren bidez baloratu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa
- 7.6.- Eskaintako eredu azterketa eta dokumentazioa egiaztatzea
- 7.7.- Dokumentazioa aurkezteari buruzko ohar argigarriak

III.- LIZITAZIOAREN ETA ESLEIPENAREN BERARIAZKO KLAUSULAK.

8.- Lizitazioaren eta esleipenaren berariazko klausulak

- 8.1.- B gutun-azala irekitzea eta kalifikatzea, C gutun-azalarekin batera, kasua hori bada
- 8.2.- A gutun-azalean jasotako proposamen ekonomikoak jendurrean irekitzea
- 8.3.- Txosten teknikoak
- 8.4.- Esleipenaren lehentasunak
- 8.5.- Argibideak





- 9.- Proposamenen sailkapena eta ekonomikoki onuragarriena den eskaintza hautatzea
- 10.- Esleipenerako hautatu den lizitatzailerak dokumentazioa aurkeztea
- 11.- Kontratuaren esleipena eta esleipenaren jakinarazpena

IV.- KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA PUBLIZITATEA

- 12.- Kontratua formalizatzea
- 13.- Kontratuak formalizatzeari buruzko publizitatea

V.- KONTRATUA BETEARAZTEA

- 14.- Betearazpenaren zuzendaritza eta ikuskapena
- 15.- Kontratuaren betearazpenari buruzko arau orokorrak
 - 15.1.- Entregaren ordua eta lekua
 - 15.2.- Kontratuaren iraupena eta entrega-epeak
 - 15.3.- Ondasunak ordezteak
 - 15.4.- Jarraikako entregen zenbatekoa
 - 15.5.- Instalazioa
 - 15.6.- Ondasunak hartzea eta argibideak
 - 15.7.- Administrazioaren berandutza harreran
 - 15.8.- Entrega aurretiko galtzeak edo kalteak
 - 15.9.- Entrega, garraio eta instalazio gastuak
- 16.- Kontratistaren beste betebeharrak
- 17.- Saneamenduko betebeharrak fabrikazio-prozesuan
- 18.- Administrazioaren ahalmena
- 19.- Abonuak enpresa kontratistari
- 20.- Kontratua aldatzea eta etetea
- 21.- Kontratua lagatzea eta azpikontratazioa

VI.- KONTRATUA AMAITZEA

- 22.- Hornidura hartzea
- 23.- Berme-epea
- 24.- Kontratuaren likidazioa
- 25.- Kontratuaren amaiera
- 26.- Bermea itzultzea
- 27.- Epeak ez betetzea





VII.- ERREKURTSOAK, ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

28.- Errekurtsiak. Kontratazioaren arloko errekurtsio berezia

29.- Eskumenak eta Jurisdikzio eskuduna

I. ERANSKINA Proposamen ekonomikoa.

II. ERANSKINA Bestelako hobekuntza batzuetarako proposamena, eskainitako prezioa gehitu gabe. Hobekuntza horiek, eskaintzak baloratzeko bestelako irizpideetan jasota ez dauden prestazio gehigarriak izango dira, kontratuan adierazitako betebeharren gainekoak.

III. ERANSKINA Baliabideak atxikitzeko eta gauzatzeko baldintza bereziak betetzeko konpromisoa.

IV. ERANSKINA Gaitasuneko erantzukizunpeko adierazpena.

V. ERANSKINA Enpresak eskainitako informazio batzuei izaera konfidentziala emateko eredia.

VI. ERANSKINA Atzerriko enpresak.

VII. ERANSKINA Eusko Legebiltzarrak ordainketaren zati gisa esleipendunari emango dizkion materialen zerrenda.





I. KONTRATUAREN XEDEA ETA GAI OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1.- Kontratu honen xedea oinarri teknikoen pleguan jasotzen diren eta plegu honen karatularen 1. puntuan adierazten diren produktuak edo ondasunak erostea, eskuratzea eta, hala badagokio, instalatzea izango da.

1.2.- Plegu honen karatularen 1.6 puntuan onartzen badira, lizitatzailleek puntu horretan adierazitako elementuei, baldintzei eta aurkezteko modalitateei erantzuten dieten aldaerak eskaini ahal izango dituzte, eta bertan azaldutako gehienezko kopuruan.

2. ARAU ERREGULATZAILEAK

2.1.- Kontratua hauek zuzenduko dute:

- a) Plegu honetako klausulek, horren karatulako zehaztapenekin osatuta, bai eta klausula teknikoen agiriko baldintzek.
- b) Urriaren 30eko Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak.
- c) 817/2009 Errege Dekretua, zeinaren bidez partzialki garatzen baita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea.
- d) Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak (HAKLEO), SPKlan aurreikusitakoari aurre egiten ez badio.
- e) Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak.
- f) Estatuan zein Euskadiko Autonomia Erkidegoan kontratazioa arautzen duten, eta horren esparruan aplikatzekoak diren beste edozein xedapenek.

2.2.- Itundutakoaren betearazpenean aplikatzekoak izan daitezkeen kontratuaren edozein baldintza, horren dokumentu erantsiak, edo legebiltzar-administrazioak emandako edozein motatako argibideak, pleguak edo arauak ez ezagutzeak ez du enpresaburua horiek betetzeko betebeharretik salbuetsiko.

3. KONTRATUAREN AURREKONTUA, KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

3.1.- Legebiltzar-administrazioak formulatutako aurrekontuaren zenbatekoa karatularen 9. puntuan agertzen dena da, hala badagokio, karatularen 10. puntuan aurreikusitako urte-saritan zatituta.

3.2.- Kreditu zehatza dago Legebiltzar Administrazioarentzat kontratu honen betearazpenetik sor litezkeen betebeharrak ekonomikoei arreta emateko, eta horren aurrekontuko kontsignazioa plegu honen karatularen 10. puntuan agertzen dena da.

3.3.- Kontratuaren prezioa bere esleipenaren ondoriozkoa izango da eta ezingo du Legebiltzar Administrazioak formulatutako aurrekontua gaingitu.





4.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

4.1.- Kontratuaren betearazpena enpresa kontratistaren ardurapean eta bere menturaz egingo da.

4.2.- Hala ere, prezioak berrikusteari dagokionean, agiri honen azaleko 15. puntuan ezarritakoa hartuko da aintzat, kontuan hartuta SPKLaren II. Kapituluaren III. Tituluan ezarritakoa, bai eta Administrazio publikoen kontratuen legearen Erregelamendu orokorrean ezarritakoa ere.

4.3.- Kontratuak prezioak berrikustea aurreikusten ez baldin badu, inguruabar hori ez da aldatuko betearazpen-epea luzatzeagatik, non eta luzapen hori Legebiltzar Administrazioari egoztekoa den kausagatik sortu ez den, edo ezinbesteko kasuengatik –SPKLaren 214. artikuluan ezarrita daude horiek–.

4.4.- Kontratuak prezioak berrikustea aurreikusten baldin badu, hori bere zenbatekoaren % 20 betearazi denean eta bere esleipenetik urtebete igaro denean baino ez da bidezkoa izango, eta beraz, ez % 20ko portzentajea, eta ez esleipenetik kontatzen hasita betearazpenaren lehen urtean, ezingo dira prezioak berrikusi.

5.- HORNIDURAREN IRAUPENA

5.1.- Kontratuaren betearazpenaren edo iraupenaren gehienezko epea plegu honen goiburua den karatularen 11. puntuan ezarriko da, eta horren 11.1 puntuan emango da betearazpenaren zatikako epeen berri.

5.2.- Berriztagarria izan eta bere luzapena edo luzapenak plegu honen karatularen 12. puntuan aurreikusita dagoen/dauden kontratuak luzatu ahal izango dira; kasu horretan, kontratuaren iraupen osoak, luzapenak barne hartuta, ezingo du lau urteko epea gainditu, eta horiek ezingo dira itundu, bakarka zein batera, jatorrian finkatutakoa baino epe luzeagoan.

6.- PROZEDURA ETA ESLEITZEKO MODUA

Kontratu hau esleitzeko, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeko 122. artikulua 2. puntuak aurreikusi eta lege-testu horretako 141. eta ondorengo artikuluek garatutako prozedura irekia erabiliko da.

II. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA

7.1.- ARAU OROKORRAK

Kontratuaren xede den lizitazioan -eta aurrerago zehazten den moduan- eskaintzak aurkeztu ahal izateko, pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, espainiarra edo atzerritarra. Halaber, jarduteko gaitasun osoa eduki behar du, bai eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko-profesionala egiaztatu ere.

Proposamenak aurkezteak esan nahiko du lizitatuzaileak klausula-agiri honetan eta azaleko orrian esaten den guztia baldintzarik gabe onartzen duela, eta orobat kontratuaren gainontzeko dokumentu guzti-guztietan esaten dena ere onartzen duela. Gainera, aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla





adierazten duela ulertuko da, eta prestazioa kontratatzeko eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela. Lizitatuzaile bakoitzak ezingo du aurkeztu proposamen bat baino gehiago (hori horrela izanik ere, azaleko orriak bariantek baimendu ditzake kasua hori bada) ez banaka ez aldi baterako enpresa-elkarte bateko kide gisa, eta banaka lizitatu nahi duenak ezin izango du proposamenik izenpetu beste pertsona batzuekin aldi baterako elkarteetan. Arau horietakoren bat hausten bada, onartu barik geratuko dira lizitatuzaileek arau horiek hautsiz izenpetutako eskabide eta eskaintza guztiak.

Kontratu honen zehaztasun teknikoak idazten parte hartu duten enpresek, kasua hori bada, ezin izango dute lizitazioan parte hartu, parte hartze horrek lehia libreari oztupoak jartzen baldin badizkio edo gainerako enpresa lizitatuzaileekin alderatuta enpresa horren aldeko pribilegioak sortzen baditu.

7.2.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA ETA MODUA

Lizitazio honetan parte hartzeko, proposamena egin behar dutenek aurkeztu egin beharko dituzte -betiere lizitazioaren iragarkian zehaztutako epean eta klausula-agiri honen azaleko 31. puntuan zehazten den lekuan- bi gutun-azal itxi (A eta B) esleitze-irizpide bakarra dagoenean edo hiru gutun-azal (A, B eta C) irizpide bat baino gehiago daudenean, salbu eta agiri honetako 7.3.5 klausulan (balorazio-fase ezberdinak) aurreikusitako kasuan, orduan gutun-azal gehiago izango baitira. Gutun-azal bakoitzaren barruan aurrerago zehaztuko den dokumentazioa joango da, eta gutun-azal bakoitzean ondokoak adieraziko dira: zer hornikuntza-kontratutara lizitatu nahi den, enpresaren izena, proposamena sinatzen duenaren izen-abizenak eta nolako izaerarekin sinatzen duen, helbidea, telefono zenbakia, fax zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea, dena ere argi irakurtzeko moduan adierazia. Gutun-azalek lizitatuzaileak edo haren ordezkariak sinatuta egon beharko dute, nahitaez. Enpresa batzuek aldi baterako enpresa-elkarteetan elkarturik lizitatzen badute, enpresa horiek guztiek beharko dituzte gutun-azalak sinatu.

Dokumentazioa postaz bidaliz gero, lizitatuzaileak postetxean bertan egiaztatu beharko du dokumentazioa bidali deneko eguna, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio proposamena posta bidez bidali dela azaleko orriaren 32.1 puntuan aipatutako bideetakoren bat erabiliz. Bi egitekoak (dokumentazioa bidaltzea eta hori bidali izana kontratazio-organoari jakinaraztea) iragarkian adierazitako aurkezte-epea bukatzen deneko data eta ordua baino lehen egin beharko dira.

Bi baldintzak bete ezean, dokumentazioa ez da onartuko, baldin eta esaniko aurkezte-epea bukatzen deneko data eta ordua igarotakoan jasotzen bada. Dena den, aipatutako egun horretatik hamar egun natural iragan badira dokumentazioa jaso gabe, inolaz ere ez da onartua izango proposamen hori.

Jakinarazte hori kontratazio-organoari posta elektronikoz eginez gero, baliorik izango baldin badu, nahitaezkoa da argi jasota egotea bai bidali izana bai jaso izana, bai datak bai komunikazioetako eduki osoa, eta ondo identifikaturik egotea zein diren bai bidaltzailea bai jasotzailea. Halakoetan, kopia bat inprimatu, eta erregistratu egin beharko da. Gero, espedienteari erantsi beharko zaio.

7.3.- «A» GUTUN-AZALA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA EDO ESKAINTZA ETA DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Orri berezian gutun-azalaren edukiaren zerrenda bat edukiko du, zenbakiz enuntziatuta; eta gainera, ondorengo dokumentuak:

7.3.1.- Proposamen ekonomikoa: Enpresak edo ordezkatzan duen pertsonak sinatutako proposamen ekonomiko bakarra aurkeztuko da (aldi baterako enpresa-elkarte gisa aurkeztekotan,



eskaintza aldi baterako elkartean aurkezten duten enpresa guztien ordezkariak sinatu beharko dute), I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera idatzita, eskaintako prezioan kontzeptu guztiak barne hartuz, Balio Ezarriaren gaineko Zerga (BEZ) eta eragiketa karga dezakeen beste edozein zerga edo gastu, garraio-kostuak, entrega-kostuak, eta hala badagokio, ondasunen eta kontratistaren industria-mozkinen entrega eta harrerarainoko eragiketari egozten zaizkion mota guztietako instalazioak, asegeruak, muga-zergak, lizentziak eta baimenak barne.

Pleguaren karatularen 1.6 puntuak aldaerak aurkeztea baimentzen duenean, Legebiltzar Administrazioak onartutako oinarritzko xedeari buruzko proposamen ekonomikoaz gain, gutun-azal horrek eskaintza egiten duenak egiten duen aldaera bakoitzeko proposamen ekonomiko bat eduki ahal izango du. Aldaera bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa, halaber, II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera idatziko da, eta aurreko paragrafoan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak edukiko ditu.

Prezio unitarioak eta beste zerrenda batzuk. Proposamen ekonomikoaren ereduaren eta erantsitako eranskinean horrela ezartzen bada, ondasunen prezio unitarioen zerrenda sartu beharko da, edo eranskin horrek kasu bakoitzean eskatzen duen zerrenda.

7.3.2.- Ondasunen deskribapen tekniko argi eta zehatza, beti ere marka, mota eta modeloa zehaztuta.

Eskaintza hobeto ulertzeko, lehen aipatutako deskribapenak plano deskribatzaileak, eskemak eta beste edozein informazio argigarri hartu ahal izango ditu barne. Eskaintako ekipamendu eta material bakoitzari dagozkion eskuliburuak kontsultako material lagungarritzat hartuko dira eragin horretarako.

7.3.3.- Azaleko orriko 34. puntuan jarri eta formulen bidez baloratzeko moduko esleitze-irizpideak baloratzeko dokumentuak.

Gutun-azal honetan sartuko da azaleko orriko 35. puntuan eskatzen den dokumentazioa.

Aipatutako 35. puntuan ezarritako esleipen-irizpideen artean «beste esleipen-irizpide batzuetan barne hartu gabeko agindutako betebeharrei buruzko prestazio gehigarriei osatutako beste hobekuntza batzuk» kontzeptua badago, ondorengoa hartuko da kontuan:

Aipatutako hobekuntzek ez dute kontratuaren prezioa igoko, II. eranskinaren ereduaren arabera eskainiko dira, eta kontratuaren zati izango dira Administrazioak espresuki onartzen baditu.

Hobekuntza horiek, kontzeptuaren enuntziatuan jasotako ezaugarriekin, libreki eskaini ahal izango dira, karatularen 35.2 puntuak muga eta baldintza zehatzak ezartzen ez baditu; kasu horretan, horiek errespetatzen ez dituzten hobekuntzak ez dira aintzat hartuko.

Nolanahi ere, eskaintako hobekuntza bakoitza independentetzat hartzen da, eta kontratazio-organok horietako bat, zenbait edo batere ez sartu ahal izango du kontratuaren barruan.

7.3.4.- Karatularen 1.6 puntuan baimentzen denean, aldaerak aurkeztu nahi dituztenek, proposamen ekonomikoarekin batera, aurkeztutako aldaerei buruzko dokumentuak sartu beharko dituzte gutun-azal horretan.

7.3.5.- Karatularen 34.4 puntuak esleipen-irizpideen balioespen-fase ezberdinak aurreikusten baditu, A gutun-azalean oinarritzko proposamen ekonomikoa baino ez da sartuko, eta hala badagokio, aldaerei dagozkienak. Gainera, ezarri diren balioespen-fase adina gutun-azal aurkeztuko dira (prezioari buruzkoa izan ezik). Horietako bakoitzean balioespen-fase bati dagokion



dokumentazioa sartuko da. Gutun-azal bakoitzak dagokion balioespen-fasea identifikatuko du, karatularen 34.4 puntuaren esleitutako balioespen-fasearen zenbakia eta plegu honen 7.2 klausulan zehazten diren gainerako datuak aipatuz.

7.3.6.- Beharrezkotzat joz gero, enpresak, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta egoteagatik, gutun-azal horretan barne hartutako isilpekotzat jotzen dituen eskaintzaren informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, VI. eranskinean barne hartutako ereduaren arabera. Egindako proposamen ekonomikoak inola ere ez du izaera hori izango.

7.4.- «B» GUTUN-AZALA: ADMINISTRAZIOARI, GAITASUNARI ETA KAUDIMENARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

B gutun-azalak ondorengo dokumentuak edukiko ditu, eta horiekin batera, orri berezian, horren egindako zerranda bat erantsiko da, zenbakiz enuntziatuta:

7.4.1.- Proposamena bere izenean edo ahaldun gisa aurkezten duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala.

7.4.2.- Proposamengilea pertsona juridiko bat denean, Merkataritza Erregistroan inskribatutako eratzeko eta aldatzeko eskritura, hala badagokio, baldintza hori, aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriaren arabera, galdagarria balitz. Izango ez balitz, bere jarduera arautzen duten arauak jasota dauden eratzeko eta aldatzeko eskritura edo dokumentua, estatutuak edo sortze-egintza, dagokion Erregistro Ofizialean behar bezala inskribatuta.

Enpresaburuek, hala badagokio, kontratuaren xedea den jarduera edo prestazioa burutzeko eskatzekoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza egiaztatu beharko dute.

7.4.3.- Bere izenean jarduten ez duenean edo sozietate edo pertsona juridikoa denean, lehiatzen den sozietatea edo erakundea ordezkatzeko ahalorde askietsia. Ahalorde horrek behar bezala inskribatuta egon beharko du, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan. Haatik, ekitaldi zehatz baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatzea, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

7.4.4.- SPKLaren 49. artikuluan 1. eta 2. zenbakietan ezarritako kontratatzeko inolako debekutan hutsik egin ez izanaren egiaztagiria, kontratu zehatzaren erreferentzia berariaz aipatzen duena. Egiaztagiri hori lekukotza judizial edo administrazio-ziurtagiri bidez egin ahal izango da kasuen arabera, eta agintaritzaren eskudunak dokumentu hori ezin luzatu duenean, administrazio-agintaritzaren notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandako ardurapeko aitortpen batekin (IV. eranskina) ordezkatu ahal izango da.

Ardurapeko aitortpenak espresuki jasoko du indarrean diren xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela. Horri kalterik egin gabe, behin-behineko esleipenaren aurretik, kontratuaren esleipendun izango den enpresari zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak HAKLEOaren 15. artikuluan aurreikusitako moduan egunean izatearen egiaztagiria eskatuko zaio, eta horretarako hamabost egun balioduneko epea emango zaio.

7.4.5.- Otsailaren 3ko Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean kontratatzeko gaitasuna egiaztatzeko prozedura baten bidez inskribatuta dauden enpresek Erregistroko Abokatu arduradunak luzatutako indarreko ziurtagiriaren kopia baino ez dute aurkeztu beharko. Horrela, 7.7.1, 7.7.2,





7.7.3 eta 7.7.4 klausuletan adierazitako dokumentuak eta inguruabarrak aurkeztetik eta egiaztatetik salbuetsita egongo dira.

Kontratisten Erregistro Ofizialeko ziurtagiriak ez du salbuesten 7.7.7 klausulan aurreikusitako dokumentuak aurkeztetik, eta 7.7.6 klausulak aipatzen duen Jarduera Ekonomikoen Zergaren matrikulan baja hartu ez izanaren ardurapeko aitortpenetik, hori beti aurkeztu beharko baita.

Estatuko Lizitatzaille eta Enpresen Erregistro Ofizialeko inskripzioari aurreko paragrafoetan kontuan hartutako baliozkotasun eta eragin berberak emango zaizkio.

7.4.6.- Uneko ekitaldiaren alta, edo kontratuaren xedeari dagokion epigrafeko Jarduera Ekonomikoen Zergaren azken ordainagiria, beti ere enpresak zerga horri lotutako jarduerak burutzen baditu, edo aurkezpenaren datan burutzen ari den jarduerari lotutakoak, burutzen dituen lurralde-esparruan horiek burutzeko gaitzen duena. Altaz edo azken ordainagiriaz gain, aipatutako zergaren matrikulan baja hartu ez izanaren ardurapeko aitortpena aurkeztuko da.

7.4.7.- Kaudimen-baldintzen egiaztatzea, edo horrekin aurkeztu behar den dokumentazioa:

- a) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta kaudimen teknikoaren baldintzak bete dituela egiaztatzen duen dokumentazioa gaineratuko da, plegu honen karatularen 33 puntuan xedatzen denari jarraiki.
- b) Karatularen 31.3 puntuak aipatzen duen III eranskinak SPKLaren 53. artikulua bigarren paragrafoan aurreikusitako baliabide pertsonal edo materialen atxikipen-konpromisoa eskatzen badu, gutxienez IV. eranskinean zerrendatzen diren baliabide pertsonal eta materialak dauzkan atxikipen-konpromisoa sinatuta aurkeztu beharko du lizitatzailleak.
- c) 8.4 klausulan aurreikusitako esleipen-lehentasunak aplikatzeko eta egiaztatzeko, ondorengo dokumentazioa ekarri beharko da:
 1. Aipatutako klausulako a) letran adierazitako lehentasunerako, enpresan integratutako langileak egiaztatzen dituen Gizarte Segurantzako TC2 dokumentua, eta hautagaiak sinatutako aitortpena, % 33ko ezintasuna edo handiagoa duten langileen kopurua eta horien NANaren zenbakiak adierazten dituena.
 2. Bere lanpostuen % 30etik gora SPKLaren seigarren xedapen gehigarrian jasotako kolektiboetako pertsonekin kontratatuzko konpromiso formala, eta enplegua ugaltzeari eta haren kalitatea hobetzeari begira lan-merkatuaren erreformarako premiazko neurriei buruzko uztailaren 9ko 12/2001 Legearen Bederatzigarren Xedapen Gehigarriari lotuta egotea egiaztatzen duen dokumentazioa.
 3. c) letran adierazitako lehentasunerako, erakundea Bidezko Merkataritza gisa aitortuta dagoela egiaztatzen duena.
 4. d) letran adierazitako lehentasunerako, dagokion Erregistro Ofizialean inskribatuta egotea.

Eta oro har, gainera, legeria horretan lehentasuna aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.





7.4.8.- Karatularen 17.1 puntuan horrela eskatzen denean, lizitatzailleak kontratuaren aurrekontuaren % 3tik gorakoa eta beherakoa izan daitekeen behin-behineko bermea aitzinatu beharko du, eta ondoren adieraziko den moduan eratu beharko da:

Bermea esku-diruz edo Zor Publikoaren baloreez eratu ahali zango da.

Behar bezala baimendutako Banku, Aurrezki Kutxa, Kreditu Kooperatiba, Kreditu Erakunde Finantzario eta Elkarren Bermerako Sozietate batek mailegatutako abal bidez edo Espainian kauzio-arloan jarduteko aseguru-erakunde baimendu batekin egindako kauzio-aseguruaren kontratu bidez ere eratu daiteke bermea.

Esku-dirua, tituluak, ziurtagiriak, abala edo kauzio-aseguruaren kontratuaren poliza Eusko Legebiltzarreko Kontuhartzailtza Nagusian utziko dira.

Ez da eskatuko bermea Kontuhartzailtzan uztea hori abal gisa edo kauzio-aseguruaren kontratu bidez erata bada; kasu horretan, Eusko Legebiltzarraren Mahaiaren aurrean eratu da.

Behin-behineko bermearen ordez, Eusko Legebiltzarreko Kontuhartzailtza Nagusiak luzatutako berme globala egotearen, horren nahikotasunaren, eta eratu beharreko bermearen zenbatekoa ibilgetzearen ziurtagiria jarri ahal izango da.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, behin-behineko bermea elkartean parte hartzen duten enpresa batek edo gehiagok eratu ahal izango dute, beti ere elkarrekin plegu honen karatularen 17.1 puntuan eskatutako zenbatekora iristen bada, eta aldi baterako elkarte osatzen duten enpresa guztiak elkartasunez bermatzen badira.

7.4.9.- Beharrezkotzat joz gero, enpresak, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta egoteagatik, gutun-azal horretako isilpekotzat jotzen dituen dokumentazioaren informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, l. eranskinean barne hartutako ereduaren arabera.

7.4.10.- Zenbait enpresa lizitazio batera aldi baterako enpresa-elkarte bat osatuz joaten direnean, hori osatzen duen enpresa bakoitzak jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko klausuletan ezarritakoari jarraiki, hots, B gutun-azalari dagokion dokumentazioa kide guzti-guztiek ekarri beharko dute, behin-behineko bermea izan ezik, hori elkartean parte hartzen duten enpresa batek edo zenbaitek eratu ahal izango baitute, non eta elkarrekin plegu honen karatularen 17. puntuan eskatutako zenbatekora iristen den, eta aldi baterako elkarteko enpresa guztiak elkartasunez bermatzen diren.

Aldi baterako elkartean lizitatzen dutenek, halaber, proposamen-idatzi bat aurkeztu beharko dute, ondorengoak adierazteko: sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak; horietako bakoitzaren partaidetza eta kontratutik sortzen diren eskubideak egikaritzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen pertsona fisiko ordezkari edo ahalduaren izendapena, zenbateko adierazgarriko kobrantzak eta ordainketak egiteko ahalorde mankomunatuak izateari kalterik egin gabe; eta esleipendun gertatuz gero, aldi baterako elkarte gisa formalki eratzeko konpromisoa. Dokumentu hori elkarte osatzen duten enpresa bakoitzaren ordezkariak sinatuta egon beharko du. Kontratua aldi baterako elkarteari esleitzen bazaio baino ez da hori eskritura publiko gisa formalizatu beharko.

7.5.- <C> GUTUN-AZALA, BALIO-IRITZIAREN BIDEZ BALORATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

Gutun-azal honetan azaleko orriko 35. atalean aipatutako dokumentazioa aurkeztuko da, balio-iritziaren bidez baloratu beharreko irizpideak baloratzekoa.





Hobekuntzak: Eskaintzak baloratzeko irizpideen artean “Bestelako hobekuntza batzuetarako proposamena, eskaintako prezioa gehitu gabe. Hobekuntza horiek, eskaintzak baloratzeko bestelako irizpideetan jasota ez dauden prestazio gehigarriak izango dira, kontratuan adierazitako betebeharren gainekoak” kontzeptua badago, ondorengoa hartuko da kontuan:

- a) Aipatutako hobekuntzek ez dute eraginik izango kontratuaren prezioan, II. eranskineko ereduaren arabera eskainiko dira eta kontratuaren parte izango dira Eusko Legebiltzarrak berariaz onesten baldin baditu.
- b) Hobekuntza horiek, kontzeptuaren enuntziatuan jasotako ezaugarriekin, kasua bada, azalaren 35.2 puntuan ezarritako mugak errespetatuz eskainiko dira, eskaintzaren balorazioan eragina eduki ahal izan dezaten.
- c) Edonola ere, eskaintako hobekuntza bakoitza independentetzat joko da, eta hortaz, kontratazio-organoak kontratuaren barruan horietariko bat, batzuk edo bat ere ez sartzeko aukera izango du.

7.6.- ESKAINITAKO EREDUEN AZTERKETA ETA DOKUMENTAZIOA EGIAZTATZEA

Eskaintzen diren eredu guztiek Legebiltzar Administrazioak, hala badagokio, egoki irizten dion azterketaren mende egon beharko dute, eta lizitatuzaileek adierazten zaien lokalera eramateko konpromisoa hartuko dute.

Legebiltzar Administrazioak, esleipenaren aurretik zein ondoren eta kontratuan zehar, gutun-azaletan sartutako dokumentazioaren zinezkotasuna egiaztatu ahal izango du, eta enpresak aurkeztutako datu eta inguruabarren faltsutasuna kontratua suntsiarazteko kausa izango da, hala badagokio, enpresa lizitatuzaileari egoztekoa den ez-betetzeagatik; horrela, eraturako behin-behineko bermea galduko du, edo hala badagokio, eratu ez bada edo pleguaren karatularen 17. puntuan hori eratzeko eskatzen ez bada, horren balioaren kalte-ordaina ordainduko du, eta gainera, konfiskatutako bermearen zenbatekoa gainditzen dutenarekiko sortutako kalte-galeren kalte-ordaina emango dio Legebiltzar Administrazioari

7.7.- DOKUMENTAZIOA AURKEZTEARI BURUZKO OHAR ARGIGARRIAK

7.7.1.- Eskatutako dokumentazioaren jatorrizkoa edo horren kopia Legebiltzar Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatuta aurkeztu beharko da, behin-behineko bermea eratzeko egiaztatzen duten dokumentuak izan ezik, horiek jatorrizkoak izan beharko baitute beti.

7.7.2.- Ez da beharrezkoa izango Kontuhartzaitzaren behin-behineko bermea uztea berababala gisa edo kauzio-asegurua bidez gauzatu dagoenean. Kasu horretan kontratazio-organoaren aurrean gauzatu da.

7.7.3.- Esleipenaren aurka errekursoak jartzeko epeak horrelakorik jarri gabe amaitzen direnean, proposamenekin batera doan dokumentazioa lizitatu dutenen esku geratuko da.

Haatik, esleipenaren irimotasunetik hiru hilabeteko epea igarota, Legebiltzar Administrazioak lizitatu dutenek ekarritako dokumentazioa suntsitzea erabaki ahal izango du, horiek dokumentazioa jasotzen ez dutenean.

7.7.4.- «B» gutun-azalean Europar Batasuneko Estatu ez-espainolek zein gainerako enpresa atzeritarrek aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, plegu honen VI. eranskinen xedatutakoari helduko zaio.

7.7.5.- Aurkeztutako dokumentazioa Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) idatzita egon beharko du. Beste hizkuntza batean idatzita badago, dagokion itzulpen ofizialarekin batera joan beharko du.





III.- LIZITAZIOAREN ETA ESLEIPENAREN BERARIAZKO KLAUSULAK

8.- LIZITAZIOAREN ETA ESLEIPENAREN BERARIAZKO KLAUSULAK.

8.1.- B GUTUN-AZALA IREKITZEA ETA BALORATZEA, ETA KASUA BADA, <C> GUTUN-AZALA ERE IREKITZEA BALORAZIO-IRIZPIDE BAT BAINO GEHIAGO BDAGOENEAN.

Kontratazio-mahaiak aurretiaz aztertuko du «B» gutun-azalaren edukia eta aurretiaz kalifikatuko ditu garaiz eta behar bezala lizitatu dutenek aurkeztutako dokumentuak.

Kontratazio-mahaiak, dokumentu horietan, konpontzeko moduko akatsik edo hutsik ikusten badu, lizitatu dutenei jakinaraziko die, ahoz. Dena dela, hori horrela izanik ere, halakorik gertatuz gero, esaniko organo kolegiatuak jendaurrean jakinarazi beharko du, iragarki bidez, eta enpresa lizitatuzaileei epe bat emango die –ez hiru egun balioudun baino gehiago-, akats edo huts horiek kontratazio-mahaiaren beraren aurrean zuzentzeko edo betetzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutako zuzenketatik aparte, enpresaburuari argitasunak eskatu ahal izango zaizkio aurkeztutako ziurtagiri edo dokumentuei buruz, edo beste dokumentu osagarri batzuk aurkezteko galdegin, gaitasun- eta kaudimen-eskakizunak egiaztatze aldera. Eginkizun hori bost eguneko epean bete beharko du, eta dokumentuok ezingo dira aurkeztu hurrengo paragrafoan aipatutako onarpen-deklarazioaren ondoren.

Behin dokumentazioa kalifikatuta eta, halakorik badago, akatsak edo hutsak zuzenduta, Kontratazio-mahaiak zehaztuko du zein enpresak betetzen dituen azaleko orriko 33. puntuan finkatutako gaitasun- eta kaudimen-eskakizunak eta berariaz ebatziko du zein izan diren lizitazioa onartuak eta zein ez, bai eta horiek ez onartzearen arrazoiak ere.

Esleipenerako oinarriak irizpide objektibo batzuk direnean, Kontratazio-mahaiak, B gutun-azala kalifikatu ondoren, hala badagokio, C gutun-azala irekiko du eta azaleko orriko 35. puntuan eskatutako dokumentu guztiak hartan dauden aztertuko du. Ondoren kontratazioa sustatzen duen zuzendaritzara bidaliko du, esleipen-irizpideei dagokien dokumentazioa, hango zerbitzu teknikoek txosten teknikoa egin dezaten eskaintzei buruz, non aztertuko eta baloratuko dituzten aipatutako esleipen-irizpideak.

8.2.- A GUTUN-AZALEAN JASOTAKO PROPOSAMEN EKONOMIKOAK JENDAURREAN IREKITZEA.

Kontratazio-mahaiak, lizitazio-iragarkian zehaztutako tokian, egunean eta orduan, ekitaldi publikoan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 83. artikuluan adierazitakoari lotuz iragarriko du zenbat proposamen jaso diren eta zein den lizitatuzaileen izena. Ekitaldi berean jakinaraziko du B gutun-azaleko dokumentuen kalifikazioaren emaitza, onartutako proposamenak eta onartu ez direnak adierazita, bai eta hauek ez onartzeko arrazoiak ere. Ondoren, onartutako eskaintzetako proposamen ekonomikoak irekiko dira, A gutun-azaletik hartuta, eta haiek irakurriko.

Baldin eta azaleko orriko 34.4 puntuak esleipen-irizpideen balorazio-fase bat baino gehiago aurreikusten badu, kasu horretan, proposamen ekonomikoa daukan gutun-azala jendaurrean ireki baino lehen, fase desberdinei dagokien dokumentazioa irekiko du Kontratazio-mahaiak, 34.4 puntu horretan finkatutako ordenan, salbu eta proposamen ekonomikoaren dokumentazioa. Behar diren





txosten teknikoak egin ondoren, erabakiko du onartutako proposamenetatik zein pasatzen den hurrengo fasera eta zein ez, bai eta hauek ez pasatzeko arrazoia ere. Proposamen edo eskaintza ekonomikoak irekitzeko ekitaldi publikoan, eta proposamen edo eskaintza horiek ireki baino lehen, enpresa lizitatuzaileei jakinaraziko zaie zein izan diren lizitaziora onartutako enpresen eskaintza teknikoen balorazioak.

8.2.1.- Ez dira onartuko honako proposamen hauek:

- a) Kontraesanak, hutsuneak, akatsak edo zirriborroak direla-eta Eusko Legebiltzarrak eskaintza kontuan hartzeko ezinbestekoa duena garbi ikusteko biderik ematen ez dutenak.
- b) Aztertutako eta onartutako agiriekin loturarik ez dutenak.
- c) Lizitazioko oinarritzko aurrekontua gainditzen dutenak.
- d) I. eranskinean ezarritako proposamen-eredua nabarmen aldatzen dutenak.
- e) Proposamenaren zenbatekoan ageriko akatsa dutenak.
- f) Norbanako enpresaburuaren edo enpresa sozialaren ordezkariaren sinadurarik ez dutenak.
- g) Lizitaten duenaren aitortpena dutenak, proposamena bideraezina egiten duen akatsa edo funtsik eza dagoela esanez.

8.2.2- Esleipen-irizpide bakarria baino ez dagoenean, kontratazio-mahaiak, ekitaldi berean, esleipen-proposamena egingo du preziorik baxuena egiten duen eskaintzaren alde, eta bertaratu diren lizitatuzaileak gonbidatuko ditu adieraz ditzatela nahi dituzten ohar edo erreserbak. Ohar edo erreserba horiek idatziz adierazi beharko dituzte, ekitaldia egin eta ondorengo bi egun baliodunen barruan gehienez ere, eta beren idazkiak Eusko Legebiltzarreko Mahaira zuzendu. Mahaiak, kontratazio-mahaiaren txostena aztertu ondoren, ebatziko du kontratuaren esleipenaren prozedura, aurkeztutako erreklamazioari buruz ere bere iritzia emanez.

8.3.- TXOSTEN TEKNIKOAK.

Esleipenerako oinarriak irizpide objektibo batzuk direnean, kontratazio-mahaiak, proposamen ekonomikoak ireki ondoren, azaleko orriko 35. puntuan eskatutako dokumentu guztiak bertan dauden aztertuko du. Ondoren kontratazioa sustatzen duen zuzendaritzara bidali ahal izango du esleipen-irizpideei dagokien dokumentazioa, hango zerbitzu teknikoek txosten teknikoak egin dezaten eskaintzei buruz, non aztertuko eta baloratuko dituzten aipatutako esleipen-irizpideak. Irizpideak besterik gabe formulak aplikatuta kuantifikatu daitezkeenean, kasu horretan, eskaintzen balorazioari dagokionez, bestela neurtu beharreko irizpideen aplikazioa egingo da lehenengo, eta agiri bidez jasota utziko da balorazio hori. Txosten hori kontratazio-mahaiari bidali beharko zaio, hark proposamenak, aktak, txosten teknikoak, bere esleipen-proposamena eta egokitzat jotzen dituen oharra Eusko Legebiltzarrari helarazi diezazkion. Kontratazio-mahaiak, bere proposamena egin baino lehen, egoki irizitako txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu kontratazioaren esleipenari dagokionez.

Azaleko orrian nagusitasuna eman baldin bazaie balio-juzku baten arabera neurtu beharreko irizpideei, adituaren lantalde bat eratu beharko da eskaintzen ebaluazioa egiteko, edo ebaluazio hori klausula-agiri honetako azaleko orriko puntuan identifikatutako erakunde tekniko espezializatuari gomendatuko zaio.

Agiriaren azalak balorazio-fase bat baino gehiago ezarri baditu, eskaintzaren alderdi teknikoen balorazioa proposamen ekonomikoaren jendaurreko irekiera baino lehen egingo da.





Azaleko orriko 36. atalean aurreikusita dagoenean, enkante elektronikoa egin ahal izango da Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 132. artikulua arabera, prezio-hobekuntzak edo eskaintzen zenbait elementuri buruzko balio berriak aurkezteko, eskaintzak orokorrean hobetze aldera.

Enkantea prozesu iteratibo gisa eratuko da, eta eskaintzen lehenengo ebaluazio oso bat egin ondoren gauzatuko.

8.4.- ESLEIPENENKO LEHENTASUNAK

Eskaintzarik abantailatsuena zehaztu ondoren eta behin-behineko esleipen-proposamena egin aurretik, kontratazio-mahaiak esleipen-lehentasunak aplikatuko ditu, beti ere ondorengo baldintzak betetzen direnean:

lizitatuzaileak plegu honen 7.4.7.c) klausulak aipagai duen dokumentazioa ekartzen duen guztietan, ondoren adieraziko diren enpresen proposamenek izango dute lehentasuna esleipenean, beti ere esleipen-irizpide objektiboen ikuspegitik proposamen abantailatsuena berdintzen badute:

- a) Kaudimen teknika egiaztatzeko unean bere plantillan ezintasuna duten langile-portzentaje handiena duen enpresa, portzentaje hori bere plantillaren % 2tik beherakoa ez bada.
- b) Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak berariaz sustatzen eta lan-munduratzeko jarduten duten enpresak, Lan Merkatuaren Erreformatarako Premiazko Neurriei buruzko zuzendaritzaren 9ko 12/2007 Legearen Bederatzigarren Xedapen Gehigarrian araututakoak
- c) Bidezko Merkataritzarako aukera duten produktuak xede dituzten kontratuetan, Bidezko Merkataritzako Erakunde gisa aitortutako erakundeak.
- d) Gizarte- edo laguntza-izaerako prestazioei buruzko kontratuetan, irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkeztutakoak.

Lehentasuna aplikatzerakoan, ezaugarri bat baino gehiago dituen enpresaren proposamenak izango du lehentasuna. Balizko berdinketak ezarritako lehentasun-ordenaren arabera lehentasunezko esleipen-irizpidean puntuazio hoberena duen eskaintzaren alde ebatziko dira. Eta jarraibide hori ez egotekotan, zozketa bidez.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, lizitatuzaile bakoitzak elkartean duen proportzioaren arabera ezarritako dira lehentasunak.

8.5.- ARGIBIDEAK

Azkenik, kontratazio-mahaiak edo kontratazioa sustatzeko zerbitzuak Eusko Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztuko dizkio proposamen horiek beheranzko ordenan sailkatuta, Aktak, ekarritako gainerako dokumentazio teknikoak, esleipen-proposamenarekin eta bidezko deritzon oharrekin batera. Esleipen-proposamenaren aurretik, eskaintzaileei eskaintzen alderdiren bat ulertzeko behar diren argibideak idatziz ematea eskatu ahal izango zaie. Inola ere ez da onartuko argibideen prozesuan lizitatuzaileak eskaintzan adierazitako baldintzak aldatzerik. Hasieran proposatutako irtenbidea analizatzea errazten duen informazioa baino ez da aintzat hartuko.





9.- PROPOSAMENEN SAILKAPENA ETA EKONOMIKOKI ONURAGARRIENA DEN ESKAINTZA HAUTATZEA.

- 9.1.- Aurkeztu diren eta, SPKLren 136. artikuluan adierazitakoaren arabera, anormaltzat edo neurritz kanpokotzat hartu ez diren proposamenen zerrenda bidaliko dio kontratazio-mahaiak kontratazio-organoari, goitik beherako ordenan sailkatuta, baldintza-agirian adierazitako esleipen-irizpideei jarraituz, eta onartu ez diren, baztertu diren edo atzera bota diren eskaintzak adieraziz. Sailkapenarekin batera, aktak, egindako txostenak, ekonomikoki onuragarriena den eskaintzaren identifikazioa eta bidezkoztat jotzen dituen oharra ere aurkeztuko ditu.
- 9.2.- Kontratazio-mahaiak ekonomikoki onuragarriena den eskaintzaren identifikazioa egin arren, horrek ez dio inolako eskubiderik emango hautatutako lizitatuari Administrazioaren aurrean.

10.- ESLEIPENERAKO HAUTATU DEN LIZITATZAILEAK DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA.

- 10.1.- Esleipenerako hautatuko den lizitatuilea hautatzeko, kontratazio-organoak, oro har, kontratazio-mahaiak egindako proposamenari jarraitu beharko dio. Horrela egin ezean, proposamenari ez jarraitzeko erabakia arrazoitu beharko du kontratazio-organoak, eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena egingo du.
- 10.2.- Kontratazio-organoak agindeia egingo dio ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu duen lizitatuileari, jarraian adierazi diren inguruabarrak egiaztatzeko agiriak auzer ditzan hamar asteguneko epean, agindeia jaso eta hurrengo astegunetik aurrera zenbatzen hasita. Hona hemen egiaztatutako beharrek inguruabarrak:
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
 - Behin betiko bermea eratu izana eta, karatularen 17.3 puntuetan eskatuz gero, dagokion berme osagarria eratu izana.
 - Iragarki ofizialen zenbatekoak ordaindu izana.
 - Kontratuaren zati edo atal zehatz batzuetarako gaikuntza edo baimen profesional jakinen bat eskatu bada karatulan eta, horretarako, azpikontratatzeko konpromisoa aurkeztu badu enpresak, eskritura publikoan formalizatu beharko da hori.
 - Gaikuntza edo baimen profesional jakinen bat duten enpresa espezializatuak dagokien sailkapena eskatu bada karatulan eta, horretarako, azpikontratatzeko konpromisoa aurkeztu badu enpresak, eskritura publikoan formalizatu beharko da hori.
 - Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzeko beste edozein agiri, eta kontratazio-organoak eskatutako kontratua gauzatzean erabiltzeko konpromisoan azaldu ziren bitartekoak benetan dituela dioen beste edozein agiri.
- 10.3.- Zerga-betebeharrak beteta dauzkala frogatzeko ondoko agiriak aurkeztu behar dira (APKLEO, 13. eta 15. artikulua):
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria; Zergan alta emanda egon arren oraindik ordaindu beharrik sortu ez bada, alta-agiria. Ordainagirian jardueraren epigrafea agertzen ez bada, alta-agiria nahitaez aurkeztu behar da. Agiri hauetan, kontratuaren xede den jardueraren epigrafea agertu behar da, hain zuzen ere enpresari lanean ari den lurraldean jarduteko ahalmena ematen diona. Gainera, esleipendunak zerga horretan baja emanda ez dagoela dioen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialaren ziurtagiria eta





ziurtagirian jasotakoa ez dela aldatu dioen erantzukizunpeko adierazpena (IV. eranskina) aurkeztuz gero, enpresak ez dauka hemen aipatutako agiriak aurkeztu beharrik (salbuespena: zergan baja emanda ez dagoelako adierazpena, aurkeztu egin behar baitu).

- b) APKLEOren 15.2. artikuluan ezarritako betekizun formalak betetzen dituela baieztatzen duen ziurtagiria, Zerga Administrazioako organo eskudunak emana. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko inskripzio-ziurtagiria indarrean daukatela frogatzen dutenek ez dute aurkeztu beharko, indarrean dagoen artean eta bertan adierazitako inguruabarrak aldatu ezean. Enpresak horren berri eman behar du kontratua formalizatzeko agirian, hau da, inskripzio-ziurtagiria indarrean dagoela eta bertan adierazitako ezer ez dela aldatu.

Enpresak ez baditu aurkeztu behar APKLEOren 13. artikuluan aipatzen diren zerga-betebeharretako aitorten edo agiri guztiak edo horietako bat, horri buruzko erantzukizunpeko adierazpena egin behar du.

10.4.- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dauzkala frogatzeko, administrazio-agintaritza eskudunak emandako ziurtagiri positiboa aurkeztu behar du, APKLEOren 15.2. artikuluan ezarritako betekizun formalak beteta. Salbuespenen bat aplikatu behar izanez gero, erantzukizunpeko adierazpenaren bitartez frogatu behar da. Baldin eta enpresak, prozeduran zehar, frogatu badu badaukala Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko indarreko inskripzio-ziurtagiria, ez du aurkeztu beharko inskripzioa indarrean dagoen artean eta inskripzio-ziurtagirian adierazitako inguruabarrak aldatu ezean. Enpresak horren berri eman behar du kontratua formalizatzeko agirian, hau da, inskripzio-ziurtagiria indarrean dagoela eta bertan adierazitako ezer ez dela aldatu.

10.5.- Behin-betiko bermea eta berme osagarria, karatulan eskatuz gero, agiri honetako 7.4.8. klausulan ezarri den bezala eratu eta frogatu behar dira.

10.6.- Iragarki ofizialak ordaindu direlako frogagarria; esleipendunak kontratuari buruzko iragarkien argitalpen bakarra ordaindu behar du, Estatuko Aldizkari Ofizialekoa eta EHAAkoa.

10.7.- Agindutakoa adierazitakoa epean behar bezala betetzen ez bada, lizitatzailak eskaintza kendu duela ondorioztatuko da. Hori gertatuz gero, sailkapen-ordenaren arabera hurrengo lizitatzailari eskatuko zaio dokumentazio hori.

11.- KONTRATUAREN ESLEIPENA ETA ESLEIPENAREN JAKINARAZPENEA.

11.1.- Kontratuaren esleipena.

11.1.1.- Aurreko atalean adierazitako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost asteguneko epean esleituko du kontratua kontratazio-organok.

11.1.2.- Esleipena arrazoitua izan beharko da, eta epean egin ezean, euren eskaintzak kentzeko eskubidea izango dute enpresa lizitatzailak.

11.1.3.- Esleitu gabe geratzea: Kontratazio-organok ezin izango du lizitaziorik esleitu gabe utzi, baldin eta baldintza-agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.





11.1.4.- Esleipenari uko egitea eta Administrazioak prozeduran atzera egitea: Kontratazio-organoak uko egin ahal izango dio kontratua esleitzeari, betiere esleipena egin aurretik, espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoen ondorioz. Era berean, atzera egin ahal izango du esleipen-prozeduran, kontratua prestatzeko arauetan eta esleipen-prozedura arautzeko arauetan zuzendu ezin den arau-hausteren bat egin bada.

11.2.- Esleipena jakinarazi eta argitaratzea.

11.2.1.- Esleipena hautagai edo lizitatzaleei jakinaraziko zaie eta, era berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

11.2.2.- Jakinarazpena egiteko hartzaileak jakinarazpena jaso izana jasota uzteko aukera ematen duen edozein bitarteko erabiliko da. Nolanahi ere, baztertutako lizitatzale edo hautagaiari, SPKLren 310. artikuluan adierazitakoaren arabera, esleipen-erabakiaren kontra behar bezala oinarritutako errekurtsoa ipintzeko aukera emango dion beharrezko informazioa azaldu beharko da jakinarazpenean. Bereziki, alderdi hauek adieraziko dira:

- a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, hautagaitez ez onartzeko arrazoen laburpena.
- b) Esleipen-prozeduratik kanpo utzitako lizitatzaleei dagokionez, eskaintzak ez onartzeko arrazoiak, labur-labur.
- c) Nolanahi ere, esleipendunaren izena eta esleipendunaren proposamenaren ezaugarri eta abantailak, onartu diren gainerako eskaintzen aurretik eskaintza hori hautatu izana eragin dutenak.

11.2.3.- SPKLren 137. artikuluan azaltzen den konfidentziasunaren salbuespena aplikatu beharko zaio esleipenaren motibazioari.

11.2.4.- Bai jakinarazpenean eta bai kontratatzailearen profilean ere nahitaez agerrarazi beharko da kontratua zein epetan formalizatu beharko den, SPKLren 140. artikuluan adierazitakoaren arabera.

IV.- KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA PUBLIZITATEA.

12.- KONTRATUA FORMALIZATZEA

12.1.- Epea:

12.1.1.- 135.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera lizitatzaleei eta hautagaiei egindako esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hamabost (15) asteguneko epean, lizitazioaren baldintzak zorrotz bete beharko dituen administrazio-agiria formalizatu beharko da, eta une horretan bertan burututa geratuko da kontratua. Lizitazio elektronikoa erabili dutenek, kontratazio elektronikoaren sistemaren bitartez formalizatu ahal izango dute kontratua.

12.1.2.- Kontratazioaren arloko errekurtso berezia ipini ahal bazaio kontratuari, SPKLren 310.1 artikulua arabera, kontratua formalizatu aurretik hamabost (15) astegun igaro beharko dira lizitatzale eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik.





Horrelakoetan, kontratazio-organoak agindeia egingo dio esleipendunari, gehienez bost (5) eguneko epean formaliza dezan kontratua, agindeia jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu bada eta inork ez badu aurkeztu kontratuaren formalizazioa etetea eragin dezakeen errekurtsorik.

Gauza bera egingo da errekurtsua ebazteko eskumena duen organoak etena kendu badu.

12.2.- Egiaztapenak aurkeztea:

Aurreko 12.1 atalean adierazitako epeetan, eta kontratua formalizatu aurretik, honako egiaztapen hauek aurkeztu beharko ditu esleipendunak:

- a) Karatulak beren-beregi eskatutako aseguruaren poliza edo ziurtagiriak, horrelakorik eskatuz gero.
- b) Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea izatekotan, aldi baterako elkartea eratzeko eskritura publikoa aurkeztu beharko du (SPKLren 48. artikulua), kontratua amaitu arteko iraupena izan beharko duela.

12.3.- Ezin izango da kontratua gauzatzen hasi aurretiaz formalizatu ez bada, SPKLren 97. artikuluan aurreikusitako kasuetan izan ezik.

12.4.- Ez formalizatzearen ondorioak:

12.4.1.- Administrazioari egozteko moduko arrazioen ondorioz 12.1 atalean adierazitako epean ez bada kontratua formalizatu, atzerapenak eragin litzakeen kalte eta galerak ordainduko zaizkio kontratistari.

12.4.2.- Kontratua ez formalizatzeako arrazoiak kontratistari egozteko modukoak badira, behin betiko bermetik eskatu den behin-behineko bermearen zenbatekoa konfiskatzeko erabakia hartu ahal izango du Administrazioak.

13.- KONTRATUAK FORMALIZATZEARI BURUZKO PUBLIZITATEA.

Sinatu beharreko kontratuaren edo kontratuen formalizazioari buruzko publizitatea egin beharko da, ezarritako irizpideen arabera aplikatu behar zaizkien SPKLren 138. artikuluko xedapenei jarraituz.

V.- KONTRATUA BETEARAZTEA

14.- BETEARAZPENAREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA

14.1.- Kontratuaren betearazpena Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean garatuko da, eta Mahaiak hitzartutakoa zehazki betetzeko argibide aproposak eman ahal izango ditu.

14.2.- Haatik, aipatutako zeregina kontratuaren Zuzendaritzak egin ahal izango du, eta eskatutako hornidura egiaztatzeako titulazio egokia eta nahikoa duen pertsona arduradun zuzena izango da hori.





Bere zeregina betetzeko, bere agindupeko laguntzaileak eduki ahal izango ditu; horiek euren jarduerak euren lanbide-tituluetatik edo berariazko ezagutzetatik sortutako aginpideen arabera egingo dituzte, eta horniduraren zuzendaritza osatuko dute.

Izendatutako zuzendaritza kontratistari jakinaraziko dio Legebiltzar Administrazioak, kontratua formalizatzen denetik hamabost egun balioduneko epean, eta zuzendaritza horrek berdintsu jokatuko du langile laguntzaileekin.

Aldaerak enpresa kontratistari jakinaraziko zaizkio.

15.- KONTRATUAREN BETEARAZPENARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

15.1.- Entregaren ordua eta lekua.- Enpresa kontratista behartutako egongo da plegu honen karatularen 1. puntuan adierazitako ondasunak horren 11. eta 20. puntuetan finkatutako orduan eta lekuan entregatzera, baldintza teknikoei eta administrazio-klausulei jarraiki.

Haatik, kontratuaren betearazpenean zehar, Legebiltzar Administrazioak beretzat gordeko du karatularen 20. puntuan entrega egiteko finkatutako beste leku bat finkatzeko eskubidea, baina beti ere Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Lurraldearen barruan.

15.2.- Kontratuaren iraupena eta entrega-epeak.- Kontratuaren iraupena edota ondasuna edo ondasunak entregatzeko epeak karatularen 11. puntuan finkatzen direnak izango dira, eta epe horiek hornidura sustatzen duen organoak edo bulegoak enpresa kontratugileari prestazioari ekiteko agindua ematen dion egunetik zenbatuko dira; hori idatziz edo egintza jasota geratzea ahalbidetzen duen beste edozein bidez egingo da, baina ezingo da kontratua formalizatzeko data baino lehenagokoa izan.

Premiazko izapidetze gisa aitortutako espedienteetan, Legebiltzar Administrazioak kontratua betearazteari ekiteko agindu ahal izango du, hori formalizatu ez bada ere, beti ere plegu honen karatularen 17.2. puntuak aipagai duen behin betiko bermea eratu bada, plegu honen 7.4.8 klausulan ezarritako moduan.

Enpresa kontratistaren berandutzak ez du Legebiltzar Administrazioaren aurretiko larderiarik behar izango.

15.3.- Ondasunak ordezte.- Legebiltzar Administrazioak, esleitutako kontratuaren arabera eta hori betearazteko epean zehar, oinarri teknikoen pleguan eta plegu honetan zehaztu eta aurreikusitako hornidurak lortu ahal izango ditu, lizitatuzaileen proposamenetan adierazitako prezioetan, eta eskaintzen diren modeloen eta marken arabera.

Horri dagokionez, enpresak kontratatutako ondasunen baten ordezkotasun hobeak, edo oro har, itundutako baldintzen beste edozein hobekuntza duten beste batzuk jartzea proposatu ahal izango dio Eusko Legebiltzarreko Mahaiari, beti ere kontratuaren xedearen prestazio ezberdinak ez badira.

Legebiltzarreko Mahaiak proposamen horri heltzea egoki baderitzo, aurrez horniduraren organo kudeatzailearen txostena eta kontratazio-mahaiko aholkulari juridikoaren txostena eginda, adostasunez baimendu ahal izango du eta espedienteetan jasota geratuko da hori, baina enpresak ez du inolako konpentsaziorako eskubiderik izango, baizik kontratuan adostutako prezioaren abonurako eskubidea baino ez.





15.4.- Jarraikako entregen zenbatekoa.- Hornidura ondasun ugari jarraika eta prezio unitarioan entregatzea denean, horien zenbatekoa Legebiltzar Administrazioaren premien mende egongo da, eta ez da gutxieneko unitate kopuru bat eskuratzeko betebeharririk izango.

15.5.- Instalazioa.- Instalazioa, funtzionamenduan jartzea edo abian jartzea behar duten produktu edo ondasun higigarrien kasuan, enpresa kontratista eragiketa horiek egitera behartuta egongo da, oinarri teknikoen pleguan ezarritakoari jarraiki, eta horren prezioa eskainitako prezioaren barne hartuta egongo da.

15.6.- Ondasunak hartzea eta argibideak.- Zuzendaritza kontratatzaileak hornidura benetan hartzen duenean joko da entrega egintzat, kontratuaren baldintzei jarraiki. Nolanahi ere, osorik edo zatika hartzeak Zuzendaritzaren egintza formal eta baikor bat eskatuko du, eta horrek luzatuko duen harrera-aktaren bidez geratuko da jasota. Harreraren egintza formala horren entregaren ondorengoa denean, Legebiltzar Administrazioa hori zaintzeko erantzulea izango da bataren eta bestearen artean dagoen denbora-tartean.

Hornidura kontratatzeko organo eskudunek egoki deritzoten argibideak landu ahal izango dituzte, euren eskumenen esparruaren barruan, betearazpenari, hartzeari, entregaren izapideari, likidazioari eta abonuari dagokienez, beti ere sektore publikoko kontratuak arautzen dituen legerian xedatutakoa eta plegu honen klausulak ezeztatzen ez badituzte.

15.7.- Legebiltzar Administrazioaren berandutza harreran.- Arrazoi justifikaturik gabe Legebiltzar Administrazioa hornidura hartzean berandutzen bada, enpresa kontratistak salatu egin beharko du dagozkion eraginak sor ditzan. Kasu horretan, Legebiltzar Administrazioa ondasunak zaintzeko arduraduna izango da entregaren eta harreraren artean dagoen denbora-tartean.

15.8.- Galtzeak edo kalteak harreraren aurretik.- Hornidura mota edozein dela ere, esleipendunak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango Legebiltzar Administrazioari entregatu aurretik ondasunetan sortutako galtze, matxura edo kalteengatik, hori harreran berandutzen ez bada, behintzat.

15.9.- Harrera, garraio eta instalazio gastuak.- Ondasunak adostutako lekuan entregatzeko, garraiatzeko eta instalatzeko gastuak esleipendunaren kontura izango dira eta eskaintzaren barruan sartu beharko dira, plegu honen 7.3.1 klausularen arabera.

16.- ENPRESA KONTRATISTAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK

16.1.- Enpresa kontratista lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasun arloetan indarrean diren xedapen guztiak eta kontratuaren betearazpenean zehar indarrean jartzen direnak betetzera behartuta egongo da, eta betebeharririk ez dituzten Legebiltzar Administrazioari inolako erantzukizunik ekarriko.

16.2.- Enpresa kontratistaren betebeharra izango da hornidura betearazteak eskatzen dituen eragiketen ondorioz sortzen diren kalte-galeren kalte-ordaina ematea, SPKLaren 198. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

16.3.- Behar diren administrazioko lizentzia edo baimenak lortzea, ondasunak inportatzekoak barne, hala badagokio, esleipendunaren kontura izango dira beti, eta bere izenean eskatu beharko ditu.





16.4.- Administrazioak behar diren material guztiak edo zati bat jartzen dituen hornidura-kontratuetan, horiek esleipendunaren zaintzapean jarri direla joko da, eta horiek gordetzera eta itzultzera behartuta egongo da. Ondasun horiek zaintzeari eta galtzeari dagokienez, Kode Zibilean, Merkataritzako Kodean eta Kode Penalean xedatutakoari helduko zaio.

16.5.- Kontratua betearazteko hizkuntza-baldintzak. Kontratutik sortutako Legebiltzar Administrazioarekiko harremanetan, enpresa kontratistaren errealitate soziolinguistikoak horretarako aukera ematen badu, euskara erabiliko da kontratua betearazteko eraginetarako. Horretarako:

a) Enpresa kontratistak euskararen nahikoa gaitasun duten langileak atxikiko dizkio kontratuaren betearazpenari, Legebiltzar Administrazioarekiko harremana hizkuntza horretan egin ahal izan dadin. Ondorioz, kontratuaren betearazpenari atxikitako langileen eta Legebiltzar Administrazioaren arteko ahozko komunikazioak euskaraz egingo dira batik bat.

b) Komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, igorleak eta hartzaileak euskaraz egitea hautatzen ez badute.

16.6.- Ingurumen edo gizarte motako betearazpen-baldintza bereziak. Karatularen 32. puntuan horrela aurreikusi denean, kontratista esleipendunak karatularen puntu horretan zehaztuta dauden gizarte edo ingurumen motako baldintza bereziak aplikatuko ditu kontratuaren betearazpenean.

16.7.- Konfidentzialtasuna. Kontratuak izaera konfidentziala du eta hornitzaileak ezingo du kontratatutako prestazioen inolako daturik edo informaziorik beretzat edo hirugarrenei emateko erabili Legebiltzar Administrazioaren baimen idatzirik gabe; hortaz, informazioaren zein egindako lanaren izaera konfidentzialari eta erreserbatuari eusteko eskura dituen bide guztiak jartzera behartuta egongo da.

17.- SANEAMENDUKO BETEBEHARRA

17.1.- Enpresa kontratistak entregatu beharreko ondasunek Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo Tokiko Administrazioek horietarako emandako arau orokor guztiak bete beharko dituzte, dagokion oinarri teknikoen pleguan ezarri ahal izan diren berariazko arauetara kalterik egin gabe.

17.2.- Enpresa kontratista hirugarren batek jabetza intelektual, industrial eta komertzialari buruz egiten dituen errekamazio guztien arduraduna izango da, eta errekamazioak jartzeagatik sor daitezkeen kalte-galera guztien kalte-ordaina eman beharko dio Legebiltzar Administrazioari, horietatik sortutako gastu guztiak barne.

Fabrikazio-horniduraren kasuan, ustiapen ekonomikoa izan dezaketen jabetza industrial eta intelektualeko eskubideak Legebiltzar Administrazioarenak izango dira, kontratuan, karatulan edo pleguetan horren aurkakorik espresuki aurreikusten ez bada.





17.3.- Enpresa kontratista hornitutako ondasunen kalitatearen eta sor litezkeen akatsen erantzule izango da. Antzematen diren akatsak Administrazioaren zuzeneko agindu baten edo horrek ezarritako baldintzen ondorio zuzena direnean baino ez da erantzukizunetatik salbuetsita geratuko.

18.- LEGEBILTZAR ADMINISTRAZIOAREN AHALMENA

Zuzendaritza kontratatzaileak, eskatzen duenean, kontratuaren ondorioz entregatu behar den produktua fabrikatzeko edo lantzeko prozesua ikuskatzeko edo horretaz informatzeko ahalmena du, eta hitzartutakoa zehazki betetzeko bere kabuz erabiliko diren materialen analisiak, saiakuntzak eta probak egin, kalitate-kontrolak ezarri eta egoki deritzon xedapen guztiak eman ahal izango ditu.

19.- ABONUAK ENPRESA KONTRATISTARI

19.1.- Enpresa kontratistak egiaz entregatutako eta Legebiltzar Administrazioak formalki hartutako horniduren prezioaren abonurako eskubidea izango du, kontratuan ezarritako baldintzen arabera.

19.2.- Egindako horniduraren zenbatekoa kontratua osorik edo zatika egin izana egiaztatzen duten dokumentuen bidez egingo da: plegu honen karatulan adostu den aldizkakotasunaren fakturak, minutak, etab., SPKLaren 200. artikulua ematen dien izaerarekin.

19.3.- Plegu honen karatulan 14. puntuan horrela ezartzen denean, kontratuaren xedean barne hartutako kontratuaren betearazpena prestatzeko eragiketen zenbatekoaren konturako abonua egiaztatu ahal izango dira, enpresa kontratistak aurrez idatziz eskatuta; fabrikazio-horniduraren kasuan, HAKLEOaren 155. eta 157. arteko artikuluetan ezarritako baldintzak eta formak bete beharko dira, eta gainerakoetan, 1972ko martxoaren 8ko Aginduak onartzen duen Administrazio-klausula orokorren pleguaren 39. artikuluan ezarritakoak.

19.4.- Plegu honen karatulan 9.2 puntuan horrela aurreikusten denean, horniduraren zatikako ordainketa egingo da, kontratuaren xede diren mota bereko ondasunak entregatuz.

Entregatu beharreko ondasunen balioespenaren zenbatekoa aipatutako karatulan 9.2 puntuan kontsignatutakoa da, eta inola ere ez du kontratuaren gutzizko prezioaren % 50a gaindituko.

Eusko Legebiltzarrak SPKLren 270. artikuluan xedatutakoaren arabera emango ditu ondasunak.

19.5.- Legebiltzar Administrazioak ordainketa bi hilabetetik gorako epean berandutzen badu, enpresa kontratistari berandutza-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina abonatu beharko dizkio, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan.

19.6.- Dagokion kontratua formalizatu arte ezingo da inolako ordainketarik egin.





20.- KONTRATUA ALDATZEA ETA ETETEA

20.1.- Legebiltzar Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, hori egiteko unean premia berrien edo aurreikusi gabeko kausen ondorioz, eta SPKLaren 202. eta 272. artikuluetan ezarritakoa aplikatzeko izango da.

20.2.- Legebiltzar Administrazioak ezingo ditu enpresa kontratistarekin kontratuaren xede diren prestazio ezberdinak negoziatu. Horiek beharrezkotzat jotzen dituzenean, kontratu independentearen xedetzat hartuko dira, eta beraz, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen legerian aurreikusitako izapideak beteko dira.

20.3.- Kontratuaren aldaketak SPKLaren 140. artikuluan xedatutakoari jarraiki egin beharko dira.

20.4.- Suntsiarazpen-kausa izango dira, bakarka zein batera, kontratuaren hasierako prezioaren % 20tik gorako edo beherako zenbatekoa gainditzen duten kontratuaren aldaketak, balio erantsiaren zerga kanpo utzita, edo hasierako prestazioaren aldaketa nabarmena ekartzen duten aldaketak.

20.5.- Kontratua eteteari dagokionez, SPKLaren 202. artikuluan adierazitakoari helduko zaio.

21.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA

21.1.- Arlo honetan SPKLaren 209. eta 210. artikuluetan aurreikusitakoari helduko zaio, eta pleguaren karatulak zehazten duenaren arabera.

21.2.- Pleguaren karatulak azpikontratazioa debekatzen ez badu, eta kontratu jakin batzuei buruzko berariazko eskakizunei kalterik egin gabe, enpresa kontratistak ondorengo baldintzak orokorrean egiaztatzeko betebeharra izango du:

21.2.1.- Kontratuaren zatikako betearazpena eta azpikontratatzeko diren kontratuaren zatiak zer azpikontratatistekin itunduko dituen, SPKLaren 210. artikuluan 2.a) atalean eta pleguaren karatulan xedatutakoari jarraiki.

21.2.2.- Kontratatzeko gaitasunik ez duten pertsonak kontratatatzeko debekuari buruzko SPKLaren 210. artikuluan ezarritako baldintza betetzea, antolamendu juridikoaren arabera, edo 49. artikuluko kasuren batean barne hartutakoak, aipatutako legearen «K» letra izan ezik, edo sailkapenak etenda daudenak.

21.2.3.- Enpresa kontratistak azpikontratatistarekin edo hornitzaileekin itundutako prezioa SPKLaren 211. artikuluan aurreikusitako epe eta baldintzetan ituntzeko betebeharra betetzea.

21.3.- Baldintza horien egiaztapena esleipendunak ondorengo dokumentuak aurkeztuta egingo da:

21.3.1.- Azpikontratazioa egin aurretiko komunikazioa idatzia, kontratuaren zatikako betearazpena eta azpikontratatzeko diren kontratuaren zatiak itunduko dituen azpikontratatistak zerrendatuta.





21.3.2.- Komunikazio horri azpikontratista eta hornitzaile bakoitzarekin sinatu beharreko alde-biko dokumentu baten zirraborra gaineratuko zaio, non biek SPKLaren 211. artikuluan adostu edo jasotakoa betetzen dituzten ordaintzeko epeak eta baldintzak ituntzen dituzten.

21.3.3.- 21.3.1 puntuan aipatutako komunikazioari, halaber, ondorengo egiaztagiria erantsiko zaizkio:

a) Azpikontratistak SPKLaren 49. artikuluan eta aurreko 21.2.2 klausulan adierazitako baldintzetan ezarritako kontratatze inolako debekutan hutsik ez egin izanaren egiaztagiria. Egiaztagiri hori lekukotza judicial edo administrazio-ziurtagiri bidez egin ahal izango da kasuen arabera, eta agintaritza eskudunak dokumentu hori ezin luzatu duenean, administrazio-agintaritza, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandako ardurapeko aitormen batekin (IV. eranskina) ordezkatu ahal izango da. Kasu horretan, pertsona juridikoak badira, enpresa Administrazioaren aurrean ordezkatzeko egiaztatzen duen sinatzen duenaren ahalordea aurkeztu beharko da, eta pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala.

b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak betetzeari dagokionez, eragin horretarako dagozkion Ogasunek eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak luzatutako egiaztagiri administratiboaren edo administratibo bidez, edo Kontratisten Erregistro Ofizialean indarrean den Ziurtagiriaren bidez egunean izatea egiaztatu beharko dute azpikontratistek, HAKLEOaren 15. artikulua aurreikusten dituen irismenarekin eta formarekin; hala ere, Jarduera Ekonomikoen Zergari dagokionez, alta aurkeztu beharko da, eta hala badagokio, dagokion azken ordainagiria.

c) Otsailaren 3ko Kontratisten Erregistro Ofizialari eta sailkapenaren ezarpenari buruzko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean kontratatze gaitasuna egiaztatze prozedura baten bidez inskribatuta dauden azpikontratistek Erregistroko Abokatu arduradunak luzatutako indarreko ziurtagiriaren kopia baino ez dute aurkeztu beharko.

Horrela, aurreko a) eta b) puntuetan adierazitako dokumentuak eta inguruabarrak aurkeztetik eta egiaztatetik salbuetsita egongo dira.

21.4.- 21.3 klausulan aipatutako dokumentuak azpikontratazioa egin behar den data baino hamabost egun baliadun lehenago aurkeztu beharko dizkio gutxienez esleipendunak Eusko Legebiltzarreko Mahaiari, eta hori egin ondoren, 21.3.2 klausulan aipatutako alde-biko dokumentuaren jatorrizko bat, behar bezala sinatuta, aurkeztuko dio esleipendunak Eusko Legebiltzarreko Mahaiari. Esleipendunak betebeharrak beteko ez balu edo ezarritako baldintzak beteko ez balira, azpikontratazio hori ezin egingo litzateke.

VI.- KONTRATUA AMAITzea

22.- HORNIDURA HARTzea

22.1.- Kontratu enpresak betetzat joko da enpresa horrek, kontratuaren baldintzen arabera eta Legebiltzar Administrazioa gogobeteta, kontratuaren xedea osorik betetzen duenean.





22.2.- Hori egiaztatzeko, Legebiltzar Administrazioak harrerako edo adostasuneko egintza formal eta baikor bat egingo du kontratuaren xedea entregatu edo burutzen den hurrengo hilabetearen barruan, edo agiri honen azalaren 29.1 puntuan zehazten den epean.

22.3.- Enpresa kontratistak, berak edo baimendutako ordezkariaren bidez, horniduraren ondasunak kontratuan itundutako lekuan eta datan entregatu beharko ditu. Enpresa kontratistaren berandutzak ez du Legebiltzar Administrazioaren aurretiko larderiarik behar.

22.4.- Aurkako itunik ezean, horniduraren ondasunak adostutako lekuan entregatzeko eta garraiatzeko gastuak enpresa kontratistaren kontura izango dira.

22.5.- Ondasunak hartzeko egoeran ez badaude, harrera-aktan horrela jasoko da eta argibide zehatzak emango zaizkio enpresa kontratistari antzemandako akatsak zuzen ditzan, edo itundutakoaren arabera hornidura berri bati ekin diezaion.

23.- BERME-EPEA

23.1.- Berme-epea plegu honen karatularen 29.2 puntuan ezartzen dena izango da, hornidura hartzeko egintzatik kontatzen hasita. Epe hori Legebiltzar Administrazioaren objektiorik gabe igarota, enpresa kontratistaren erantzukizuna iraungi egingo da.

23.2.- Berme-epean zehar, enpresa kontratistak hornitutako ondasunen aplikazioari buruz ezagutu eta entzuna izateko eskubidea izango du.

23.3.- Berme-epean zehar hornitutako ondasunetan akatsak edo bizioak daudela egiaztatuko balitz, enpresa kontratista behartuta egongo litzateke, Legebiltzar Administrazioaren aukeran, ezegokiak direnak birjartzera, edo nahikoa balitz, horiek konpontzera.

23.4.- Hornitzaileak bere kontura egin beharko ditu berme-epean detektatzen diren beharrezko aldaketak edota konponketak, agindu teknikoen pleguan jasotako balioak betetzea lortu arte.

23.5.- Berme-epean zehar Eusko Legebiltzarreko Mahaiak, ondasunetan enpresa kontratistari egotz dakizkiokeen aurkitutako akats edo bizioen ondorioz emandako ondasunak nahi den xederako egokiak ez direla, eta ondasun horien birjarpena edo konponketa xede hori lortzeko nahikoa ez dela iritziko balio, epe hori agortu aurretik ondasunei uko egin liezaieke eta enpresa kontratistaren esku utz litzake, eta Legebiltzar Administrazioa salbuetsita geratuko litzateke ordaintzeko betebeharretik, edo hala balegokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeke eskubidea izango luke.

23.6.- Berme-epea Legebiltzar Administrazioak aurreko ataletan aipatutako konponketak edo salaketak egin gabe igarota, enpresa kontratista emandako ondasunen erantzukizunetatik salbuetsita geratuko da.

24.- KONTRATUAREN LIKIDAZIOA

Harrera-aktaren datatik hilabeteko epean, kontratuari dagokion likidazioa adostu eta enpresa kontratistari jakinarazi beharko zaio, eta hala badagokio, ondoriozko saldoa abonatu zaio. Likidazio-saldoaren ordainketan berandutza gertatuko balitz, enpresa kontratistak berandutza-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango luke, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen Legean aurreikusitako baldintzetan.





25.- KONTRATUAREN AMAIERA

25.1.- Betetzeagatik edo suntsiarazpenagatik amaituko da kontratua.

25.2.- Kontratua suntsiarazteko kausak dira plegu honetan eta SPKLaren 206. eta 275. artikuluetan berariaz aurreikusten direnak.

Eragin horietarako, suntsiarazpen-kausa izango da enpresa kontratistak plegu honetan agindu-izaerarekin ezarritako funtsezko edozein betebeharrak ez betetzea.

25.3.- Suntsiarazpenaren eraginak SPKLaren 206. eta 276. artikuluetan ezarritakoaren arabera zehaztuko dira.

26.- BERMEA ITZULTZEA

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak bermea itzultzeko edo deuseztatzeko akordioa emango du plegu honen karatularen 29.2 puntuan kontsignatutako berme-eparearen mugaeguna gertatu, kontratua likidatu eta hori gogobetetasunez bete ondoren.

Kontratua amaitu eta harrera formala eta likidazioa enpresa kontratistari ezin egotzi zaion kausagatik burutu gabe urtebete igarota, bermea itzultzeari edo deuseztatzeari ekingo zaio berandutzarik gabe, beti ere SPKLaren 88. artikulua aipagai dituen erantzukizunak gertatu ez badira.

27.- EPEAK EZ BETETZEA

27.1.- Enpresa kontratistak, berari egotz dakizkiokeen kausengatik, pleguaren karatularen 11.1 puntuan ezarritako zatikako epeak betetzeari dagokion berandutza-akatsa egingo balu, edo horiek betetzeko berandutzak epe osoa betetzea ezinezkoa dela arrazionalki susmarazten duenean, edo hori bete gabe geratuko balitz, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak kontratuaren suntsiarazpena eta bermearen galera, edo SPKLaren 196.4 artikuluan ezarritako zigorrak jartzea, edo horien ezberdinak eta plegu honen karatularen 25. atalean agertzen direnak jartzea aukeratu ahal izango du bereizi gabe.

Aintzat hartu behar da SPKLaren 196.4 artikuluen 4. paragrafoa aplikatuz, zigor ezberdinak egon litezkeela, plegu honen karatularen 25. atalean horrela agertzen bada.

27.2.- Berandutzagatiko zigorrak kontratuaren prezioarekiko % 5eko multiplo batera iristen direnean, Legebiltzarreko Mahaiak kontratua suntsiarazteko edo zigor berriak ezarrita betearazteko ahalmena izango du.

27.3.- Aurreko kasuetan, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak kontratua suntsiarazteko hautua egiten duenean, Herri Administrazioen Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorren 109. artikuluan araututako prozeduraren bidez adostuko du organo horrek.





VII.- ERREKURTSOAK. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

28.- KONTRATAZIOAREN ARLOKO BALIABIDE BEREZIA

28.1.- Erregulazio adostupeko kontratuetan, behin-behineko esleipen-akordioen, lizitazioa arautzeko pleguen, prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituzten egintzen, eta aurretiko prozeduran hartutako izapide-egintzen aurka jarri ahal izango da errekurtsu berezia, beti ere azken horiek esleipenari buruz zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzeko ezintasuna zehazten badute, edo babesgabetasuna edo interes legitimoetarako eskubideei kalte konponezina sortzen badiete.

28.2.- Kontratazio-arloko errekurtsu berezia, SPKLaren 37. artikuluan arautua, administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri aurretikoa izango da, eta horren esparruan administrazioarekiko errekurtsu arruntak jartzea ez da bidezkoa izango.

28.3.- Erregulazio adostupekoak ez diren kontratuetan, bidezkoak izango diren administrazioarekiko auziak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean aurreikusitakoak izango dira.

29.- ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

29.1.- Eusko Legebiltzarreko Mahaiak administrazio-kontratua interpretatzeko, horren betearazpenak sortzen dituen zalantzak argitzeko, herri-intereseko arrazoiengatik aldatzeko, suntsiarazteko eta horren eraginak zehazteko eskumena izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako baldintzen eta eraginaren mugen barruan eta horiei lotuta.

29.2.- Eragin horretarako emandako akordioak enpresa kontratistaren entzunaldia eginda eta bidezkoak diren txostenak egin aurretik hartuko dira, eta administrazio-bidea amaituko dute eta berehala izango dira betearazleak, indarrean den legerian ezarritako baldintzak betez.

29.3.- Administrazio-bidea amaitzen duten akordio guztien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legean xedatutakoari jarraiki. Aukerabidez, Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraiki, berraztertze-errekurtsua jarri ahal izango da eman dituen organo beraren aurrean.





EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PLEGUAREN I. ERANSKINA
PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA

..... jn./and., helbidea(e)n,
kalean eta NAN duenak, bere izenean / enpresaren
ordezkaritzan, helbidea(e)n, kalean,
..... KP tel. eta IFK dituenak

ADIERAZTEN DUT:

I.- xedea duen kontratuaren esleipenerako iragarkiaren jakinaren gainean nagoela.

II.- Agindu teknikoan plegua, administrazio-klausula partikularren plegua eta kontratu hau zuzentzen duen gainerako dokumentazioa ere ezagutzen ditudala, eta osotasunean, inolako salbuespenik gabe neure egiten ditudala eta men egiten diedala.

III.- Ordezkatzen dudana enpresak indarrean den araudiak eskatzen dituen zabalteko, instalatzeko eta funtzionatzeko baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen dituela.

IV.- Eskaintza honen prestazioari dagokionez, oinarritzko irtenbidea/..... zk. (zehaztu dagokiona) aldaeraren arabera egitea proposatzen dut, guztira (*) euroko zenbatekoaz (**) (letraz adierazi behar da), eskaintitako prezioan kontzeptu guztiak barne daudelarik, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) eta eragiketa karga dezakeen beste edozein zerga edo gastu, joan-etorrien gastuak eta kontratistaren industria-mozkina barne, eta epean (epea esleitzeko irizpidea denean soilik)

Eskaintitako guztizko zenbatekoan jasunarazi behar den BEZari dagokion (***) euroko zenbatekoa barne hartuta dago.

.....(e)n,koaren(e)an

Sin.:
NAN:

(*) Kontratuaren xedea jarraikako prestazioak eta prezio unitarioan denean, ez da atal hau bete behar, baina proposamen ekonomikoaren dokumentu hau eta eredu honi erantsitako eranskina, bai.

(**) Loteen kasuan, zehaztu zeinetara lizitatzen den, eta adierazi horietako bakoitzaren truke eskaintitako guztizko zenbatekoa, zenbateko horretan barne hartutako BEZari dagokion zenbatekoa adierazita.

(***) Salbuespen objektiboaren kasuan, hori egiaztatzen duen dokumentazioa adierazi eta erantsi beharko da.





**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

PLEGUAREN II. ERANSKINA

BESTE HOBEKUNTZA BATZUETARAKO PROPOSAMENA, ESKAINITAKO PREZIOA IGO GABE, KONTRATUAN AGINDUTAKO BETEBEHARREI BURUZKO PRESTAZIO GEHIGARRIEZ ETA BESTE ESLEIPEN-IRIZPIDEETAN BARNE HARTU GABEEZ OSATUA

..... jn./and., helbidea(e)n,
kalean eta NAN duenak, bere izenean / enpresaren
ordezkaritzan, helbidea(e)n, kalean,
..... KP tel. eta IFK dituenak

Karatularen 35.2 puntuan eta pleguaren 7.5 klausulan ezarritakoari jarraiki, oinarrizko irtenbidea/ zk. (zehaztu dagokiona) aldaerari dagokionez ondorengo beste hobekuntza batzuetarako proposamena egiten du, eskainitako prezioa igo gabe, kontratuan agindutako betebeharrei buruzko prestazio gehigarriez eta beste esleipen-irizpideetan barne hartu gabeez osatua.

Eskainitako hobekuntza bakoitza independentetzat hartzen da, eta kontratazio-organismoak horietako bat, zenbait edo batere ez sartu ahal izango du kontratuaren barruan.

HOBEKUNTZA zk. ...	
Hobekuntzaren deskribapena:	

HOBEKUNTZA zk. ...	
Hobekuntzaren deskribapena:	

HOBEKUNTZA zk. ...	
Hobekuntzaren deskribapena:	

.....(e)n,koaren(e)an

Sin.:
NAN:





EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PLEGUAREN III. ERANSKINA

BALIABIDEAK JARTZEKO ETA KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO KONPROMISOA

Enpresak honako konpromisoa hartzen du: bere ekoizpen-egitura kontratatutako jarduera garatzeko erabiliko du, eta, horrez gain:

Gaitasun teknikoaren egiaztapena osatzeko, enpresak, kontratua gauzatzeko baliabide material eta pertsonalei dagokienez, konpromisoa hartu beharko du jarraian adierazitako baliabideak jartzeko (baliabide horiek, kasu batzuetan, kontratazio-organoak ezartzen ditu, baliabide pertsonal edo materialen ezaugarrirei edo prestakuntzari gutxieneko batzuk jarri behar zaizkiola iritzita):

I.- Baliabide materialak:

II.- Baliabide pertsonalak:

BALIABIDEAK JARTZEKO ETA KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK BETETZEKO AITORPENA

.....jn./and., helbidea(e)n,
kalean eta NAN duenak, bere izenean / enpresaren
ordezkaritzan, helbidea(e)n, kalean, KP
..... tel. eta IFK dituenak

ADIERAZTEN DU:

Konpromisoa hartzen dutzenbakiko espedienteari dagokion kontratua gauzatzeari buruz, Karatulan eta klausula-agirian kontratua gauzatzeko ezarritako baldintza bereziak betetzeko, eta ondorengo hauek kontratua gauzatzeko honako hauek jartzeko: a) bere produkzio-antolamendua, b)pleguan kontratua gauzatzeko baldintza berezizat ezarritako baldintzak, c) «Gaitasun eta kaudimena» izeneko gutun-azalean egiaztatutako bitartekoa, bai eta, ezarrita egonez gero, eranskin honetan ezarritako giza baliabide eta baliabide material zehatzak.

Eta jasota gera dadin, aitorten hau sinatu du,(en),koaren(e)an

Sinadura





**EUSKO LEgebILTzARRA
PARLAMENTO VASCO**

PLEGUAREN IV. ERANSKINA

**KONTRATATZEKO DEBEKUAN HUTS EGIN EZ IZANARI BURUZKO ARDURAPEKO
AITORPENA**

..... jn./and., helbidea(e)n,
kalean eta NAN duenak, bere izenean / enpresaren
ordezkaritzan, helbidea(e)n, kalean, KP
..... tel. eta IFK dituenak

Espedienteari dagokionez.(*)

ADIERAZTEN DU:

- 1.- Baduela, honako kontratu honi dagokionez, jarduteko gaitasun osoa era jarduera egiteko behar diren baimenak.
- 2.- Ez bera, ez ordezkatzan duen enpresa, ez enpresa horren administratzaile edo legezko ordezkarietako bat ere, ez daudela sartuta administrazio publikoekin kontratatzeari dagokionez Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 49. artikuluan jasotako debeku-kasuetako batean ere.
- 3.- Era berean adierazten dut enpresak egunean ordainduta dituela indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak. Bada, konpromisoa hartzen dut nire eskaintza ekonomikoki onuragarriena dela ondorioztatzen bada, inguruabar hori egiaztatzeko, administrazio-klausula zehatzen agiriko 10.3. eta 10.4. klausuletan adierazitakoaren arabera, gehienez hamar (10) asteguneko epean, horretarako jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita; hala ere, karatularen 6. puntuak adierazten badu izapidetzea presakoa dela, epea bost (5) astegunekoa izango da.
- 4.- Ez dela esleipenduna izan edo, bere kabuz edo enpresaburuen aldi baterako elkartean, kontratuaren espezifikazio teknikoan edo prestatzeko dokumentuen lanketan ez duela parte hartu.
- 5.- Saillkapen-ziurtagirian adierazitako inguruabarrak ez direla aldatu.
- 6.- Ondorengo ataletan, BAI/EZ adierazi behar du, dagokion bezala.
 - 6.1.- Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofiziala
 - a) Ez dagoela Kontratisten Erregistro Ofizialean erroldaturik indarrean dagoen ziurtagiri batekin, eta behar den egiaztagiria eranstean duela (bai/ez), (zehaztu beharrekoa zehaztu)
 - b) Era berean, adierazten duela esleipena emateko oinarri izan ziren inguruabarrak indarrean daudela (bai/ez), (zehaztu beharrekoa zehaztu):
 - 6.2.- Enpresa-taldea (Merkataritza Kodearen 42.1 artikulua)
Enpresa enpresa-talde baten kide dela (bai/ez):
Hala bada, jarraian edo dokumentu honi erantsita, adierazi behar da taldeari atxikita egotearen zioa, bai era talde horren kide diren enpresen zerrenda, lizitatzeke interesa dutenak zehaztuz.

Eta jasota gera dadin, aitortpen hau sinatu du,(en),koaren(e)an
Sinadura

(*) Administrazio-klausula partikularren pleguaren karatularen 3. puntuan agertzen den espedientearen zenbakia adierazi.





EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

PLEGUAREN V. ERANSKINA

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAK ISILPEKO GISA IZENDATZEKO EREDUA

..... in./and., helbidea(e)n,
kalean eta NAN duenak, bere izenean / enpresaren
ordezkaritzan, helbidea(e)n, kalean, KP
..... tel. eta IFK dituenak

ADIERAZTEN DUT:

(*)..... zenbakia duen kontratazio-espedientearen gutun-azalean (*adierazi zer gutun-azalez ari den*) ekarritako dokumentazioari dagokionez, sekretu tekniko edo komertzialekin lotuta egoteagatik, isilpekotzat jotzen dira ondorengo informazioak eta alderdiak:

.....(e)n,koaren(e)an

Sin.:
NAN:

(*) Administrazio-klausula partikularren pleguaren karatularen 3. puntuan agertzen den espedientearen zenbakia adierazi.





**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

PLEGUAREN VI. ERANSKINA

ENPRESA ATZERRITARREK EKARRI BEHAR DUTEN DOKUMENTAZIOA

Europar Batasuneko enpresa ez-espainolek, ondorengo dokumentazioa ekarri beharko dute «B» gutun-azalean:

1.- Enpresek lanbide-erregistro batean izena emanda edo HAKLEOaren I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztuta egiaztatu beharko dute euren jarduteko gaitasuna.

2.- Lizitatzen duenak bere izenean jarduten ez badu edo pertsona juridikoa denean, ahalorde askietsia ekarri beharko du, eta modu ofizialean gaztelaniara edo euskarara itzuli beharko da, halaber.

3.- Kontratutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gertaera guztietarako, edozein mailatako Auzitegi eta Epaitegi espainolen jurisdikzioaren mende jartzeko aitortpena, lizitatzen duenari, hala badagokio, egokituko litzaiokeen atzerriko jurisdikzio-barrutiari espresuki uko eginda.

4.- SPKLaren 49. artikuluan adierazitako inolako inguruabarretan hutsik ez egin izanaren egiaztagiria.

Egiaztagiri hori lekukotza judizial edo administrazio-ziurtagiri bidez egin ahal izango da kasuen arabera, eta agintaritza eskudunak dokumentu hori ezin luzatu duenean, administrazio-agintaritza, notario publiko edo lanbide-erakunde kualifikatu baten aurrean emandako ardurapeko aitormen batekin (IV. eranskina) ordezkatu ahal izango da. Dagokion Estatuko legerian aukera hori aurreikusita dagoenean, agintaritza judizial batek emandako ardurapeko aitortpen batekin ere ordezkatu ahal izango da.

5.- Estatu kideak luzatutako ziurtagiria, ofizialki gaztelaniara edo euskarara itzulita, enpresak bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak eguneratuta dituela ziurtatzen duena, botere esleiztailearen Estatuko legezko xedapenen arabera.

6.- Sailkapena eskatzen bada, Europar Batasuneko Estatu ez-espainolentzat nahikoa izango da Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren aurrean euren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen tekniko egiaztatzea, plegu honen karatularen 33. puntuan eskatutakoari eta SPKLaren 64. eta 66. artikuluei jarraiki.

Europar Batasuneko Estatu kideek euren enpresa propioen alde luzatu dituzten sailkapen-ziurtagiriak edo antzeko dokumentuak gaitasun-presuntzioa dira kontratazio-organoen aurrean, SPKLaren 64.1 artikulua b) eta c) letrei, 65. artikulua a) letrari, eta 49. artikulua a) b) c) d) eta f) letrei dagokienez.

7.- Lizitatzen duenak, hala badagokio, plegu honen karatularen 17.1 puntuan eskatzen den behin-behineko bermea jarri beharko du, eta plegu honen 7.4.8 klausulan adierazten den moduan eratuko da.





8.- Europar Batasuneko Estatuak ez diren enpresa atzerritarrek, aurreko ataletan azaldutako baldintzez gain, ondorengoa egiaztatu beharko dute:

a) Jarduteko gaitasuna, dagokion Diplomaziako Misio Iraunkor espainolak edo enpresaren helbideko Espainiako Kotsuletxeko Bulegoak luzatutako txostenaren bidez, enpresak aurrez egiaztatuta tokiko, lanbideko, merkataritzako edo antzeko Erregistroan inskribatuta daudela, edo horrelakorik ezean, kontratuaren xedeak hartzen dituen jardueren esparruko tokiko trafikoan ohikotasunez jarduten dutela jasotzen duena, Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Itunaren Estatu sinatzaileak izan ezik; kasu horretan, eranskin honen 1. puntuan aurreikusitakoaren arabera egiaztatuko da horien jarduteko gaitasuna.

b) Horien jatorriko Estatuak Administrazioarekiko kontratazioan enpresa espainolek antzeko modu nabarmenean parte hartzea onartzen badu, edo Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoaren Itunaren sinatzailea bada. Baldintza hori dagokion Diplomaziako Misio Iraunkor espainolaren txostenaren bidez justifikatuko da.

c) Dokumentuen bidez, Espainian helbidea duen bulego bat irekita duela eta horren ahaldunak edo ordezkariak izenez izendatu dituela euren eragiketetarako.

d) Merkataritzako Erregistroan inskribatuta dagoela, aurreko paragrafoan aipatutako ahalordeak bezala.

e) Kontratuaren zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo utzita, SPKLaren 15. artikuluan agertzen den zifraren berdina edo handiagoa bada, ez da Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoaren Itunaren Estatu sinatzaileetako enpresei buruzko b) atalak aipatzen duen elkarrekikotasun-txostena eskatuko.





EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

AGIRIAREN VII. ERANSKINA

EUSKO LEGEBILTZARRAK ORDAINKETAREN ZATI GISA ESLEIPENDUNARI
EMANGO DIZKION MATERIALEN ZERRENDA

Materiala	Marka /mota / ezaugarriak	Kopurua

Eusko Legebiltzarrak materiala emango ez balu. Agiri honen azalaren 9.2 puntuan aurreikusitako zenbatekoa dagokion zati proportzionalean gutxituko da; hau da, eman ez diren unitateen kopurua ezarritako banakako prezioaz biderkatzean ateratzen den zenbatekoa gutxituko da.

